

berbarotarra



elkartea

"BAI, HAN BE BAI"



Bajatorku **KORRIKA** ostera be. Ez da gure asmoa berbarokideoi aurtengo **KORRIKA**ren mezua errepikatzea, ezta **KORRIKA**n parte hartzeko dagozan erakazetzea be.

Ondotxo dakigu berbarokideok, euskaldunak zaren partez, ahaleginak egingo dozuezela parte hartzeko, ahal dozuen moduan eta ahal dozuen neurrian.

Gure inguruan **KORRIKA** pasatzen danean kaleak jendez ganezka egoten dira, kilometroak laburtxoak izaten dira (batzuen mesedean) danon artean banatu behar direlako eta karreran parte hartzea itzela izaten da. Benetan txalogarria eta ikuskizun ederra!! Gogora ekarri gura deusuegu, baina, **KORRIKA**k, bere ibilbide luzean

Euskal Herri osoa zeharkatzen dabela, lekukoa azkenengo baztarreraino heltzen dala: Izpegi, Kaparroso, Hazparne... goizaldeko bostetan zein eberdiko ordu bietan, jendea bidean zain egoten dala, lekukoa noiz helduko. "Kilometro guztiak egiten dira arinetan? Hona betiko galdera. Ba, bai danak. Ez dago euskara talderik, ez dago euskara batzorderik, ez dago hezkuntza euskaldunik, baina beti dago baten bat prest arinetan egiteko, eta dagozan horrek hiru, bost edo hamar lagunok ikustea be ikuskizun ederra

da. 300 edo 500 lagun ikustea beste-koa.

Udaberri partean, Euskal Herritik irteeratxoak egiten hasten zarenean, gogoratu, zagozen lekuan zagozeela, egongo dala euskaldun izan gura daben jendea, euskara maite dabena, euskaraz bizi gura dabena, horretarako inolako laguntzarik eduki ez arren. Han be "NI ERE BAI" esango dabe.

Aupa KORRIKA 14!!!

Abarrek AEK euskaltegia

FILM LABURREN EMANALDIA

**ZINEA EUSKARAZ
KIMUAK 2005**

**Euskara
Elkarteen
film laburren
zirkuitua**

Ostetaren 17tik martxoaren 23ra.




Euskal Herrian gero eta ugariagoak dira zine produkzioak, ez nahi beste eta nahi genukeen erritmoan, baina bertan eginak, bertako aktoreekin eta bertako zuzendariek gidaturik egiten dira. Euskaraz gutxiago dago, baina badira batzuk.

Topaguneak film laburren zirkuitua antolatu du; otsailean hasita martxoaren 23an izango da azken emanaldia. ZINEA EUSKARAZ - KIMUAK 2005 izena ipini diote bost pelikula laburrek osatzen duten aurtengo egitarauari. Iazkoari jarraituta, Berbarok bost film hauetaz gozatzeko aukera eskaintzen digu, neurririk gabeko plazera: zine laburra pantaila handian. Maitasuna, argia, gorrotoa, arnasa, sentimenduak, koloreak, istorioak, beldurra, harridura... Hau guztiau sentiarazteko euskarazko produkzioak ditugu honakoak, Berbaroren eskutik.

Durangon, **Zugaza zineman** ikusi ahalko ditugu **martxoaren 17an, eguena, iluntzeko 20:30etan**. Guztira ordu eta laurdeneko emanaldiaren ondoren **solasaldia** izango da **Iñaki Beraetxekin**, Ostertz filmaren zuzendarietako bat. Filmari buruzko galderei erantzun eta jakingarri guztiak azalduko dizkigu.

Animatu zaitezte ba, holako aukera gutxi izaten da-eta.



Julene Azpeitia lehiaketa 05



Julene Azpeitia Lehiaketa izen bereko irakasle eta idazle euskaldunaren oroimenez antolatzen dau Durangoko Udalak. Gogoratu behar da 80ko hamarkadan burutu ebala Udalak lehengo edizioa. Zenbait urtetako etenaren ostean, Berbarok hartu eban lehiaketa antolatzeko ardurara, baina Julene Azpeitia izena desagertu egin zan. 1999an lehiaketaren ardura nagusia barrero pasatu zan Udalaren eskuetara.

Aurtengo edizioa aro barriko VII.a da. Ipuinak eta bertso paperak sartzen dira bost kategoriatan banatuta. Lehenengo laurak 11 eta 18 urte bitarteko durangar gazteei zuzenduta dagoz eta, azkenengoan, 18 urtetik gorakoan, edozeinek hartu daike parte.

Durangoko eskola-ume eta gazteengan euskeraz idazteko zaletasuna sustatzea eta euskeraz idatzi eta irakurri daieen motibatzea da helburu nagusia. Halan be, Julene Azpeitia Lehiaketa Euskal Herri osora hedatzen da, 18 urtetik gorako idazleei be, zelanbait, ateak irekiz.

Ipuinak eta bertso paperak apirilaren 26a orduko bialdu behar dira helbide honetara:

JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

*Durangoko Udaleko Euskara Saila - Barrenkalea 17
48200 DURANGO.*

E-mailez bialtzeko aukera be badago helbide honetara:
euskera@durango-udala.net

Berbarotarron boletinetik, animatu gura zaitutegu idaztera, edota alboan dozuen ume, gazte, heldu edo zahar horrek idatzi daieen bultzatzera.

Puintxo eta Ipuintxo

Urtero, Liburu eta Disko azokaren etorrera aprobe-txatuz, Durangaldeko haurrek literaturaz gozatzeko aukera paregabea izaten dute. Berbaro Elkarteak adin ezberdineko hurrei literaturaren munduan barrena sartzeko proiektu ezberdinak burutzen ditu. Haur Hezkuntzan ipuinak lantzen dira, ipuin hauek gure txikiei antzezten dizkiegu. Hezkuntzan eskarmentua dugun antzezteleok liburutegiko sagutxu bihurtu eta ipuinak auke-ratzeari ekiten diogu, zirraratxoak sortarazten diguten ipuin edo albumen artean adin bakoitze-rako egokienak hautatuz. Hautaketan erabilitako irizpideak hainbat dira: ipuinean landutako balo-reak, haurren egunero-kotasunean edo berarentzat garrantzizkoak diren erreferenteak, euskal erre-

ferenteak... eta batez ere balizko mundu magiko honek sortarazten digun plazerra bilatzen da antzeppen hauen bidez. Gozatuz ikasten dugunean oharkabean ikasten baitugu. Aurten laguntzaile paregabe bat izan dugu: Puintxo. Puintxo ipuintxo-en iratxo da eta bera izan da ipuinen aukeraketan, lanketan eta aurkez-penean gure gidari. Berak eraman gaitu altxorrez beteriko gordeleku ezku-tuetara. Bertan, ez dakigu lapurrak gaizkileak edo bihotz onekoak diren. Eta Puintxok euliek masusta pastela prestatzen duten Errusiako baso batera ere, eraman gaitu, saguzarrek ardoa edan eta hartzek den dena jaten duten festara. Puintxorekin ikusi dugu Olentzero egunean



txizalarrria izan eta ohetik altxa ezker, oparien itxur-raldaketa nolakoa izan daitekeen. “Maritxu Teilatuko” pertsonaia ere berreskuratu nahi izan dugu (umeei haginak erortzean jatorriz egin ohi zen errituala). Geroz eta uniformeagoa den gizarte honetan euskal identitatea duten pertsonaia hauei bizitza eman eta beraiekin jolastu dugu. Elorri-xo, Durango eta Matixenako

haurrak Olentzerorekin egon ziren abenduan; Berriz eta Zaldibarko haurrak aldiz Maritxu Teilatukoarekin otsailean. Beraz, bota hagina teilatuta!

> Oihane Gamero
antzezlea



elkarte a

Berbaroren Batzar Nagusia eta 16. urteurrenaren ospakizuna

Datorren apirilaren 9an Berbaroren urte-roko Batzar Nagusia egingo dugu Plate-ruena Durangoko Kafe Antzokian.

Batzarrak ohiko gai zerrenda izango du: 2004ko balantzea azaldu eta 2005erako

plangintzaren berri eman. Bestalde, Zuzendaritza Batzor-dean eta langileen arte-an izandako aldake-tak ere azalduko dira.


Batzarraren oste-xan, Berbaroren 16. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dugu.

Animatu zaitezte eta aprobe-txa ezazue denok elkartzeko aukera bikain hau.

Bazkarian izena emateko pasa zaitez-te Berbaroren bulego-tik apirilaren 1a baino lehen.

(Bazkaria: 15 euro)

Ikimilikili... Klik euskaraz



Azkeneko buletinean *Sasoi barriak*, *erronka barriak* artikuluekin Berbaro elkarteak abendutik aurrera izango zituen langile barriak ezagutzera emateaz gain, ziklo barri baten aurkezpena egin nahi izan zuen. Barriak izango ziren ordutik aurrera Berbaroren erronkak, elkar-tearen beraren helburu barriengatik eta gizarte moderno honek hala eskatzen duelako baita. Horregatik Arantza eta larrosaren atalari agur esan eta gaur egun pil-pilean dagoen teknologia barriei -orain ere *barri* -ongi etorria egin diegu.

Jakina da internetek sorgindurik dituela haur, gazte, heldu eta zenbait zahar ere. Jakina da, baita, sorginkeria deritzotela beste hainbatek, klik egin eta ordenagailu-kutxan azaltzen zaigun informazio pilagatik. Maki-latxo miragarria patrikatik ateratakoan aztiak egiten duen legez, braust! ezustean eta ezerezetik informazioa barra-barra ageri zaigu.

Internetekin asteroko erosketak egin ditzakegu, gustuko dugun musika taldearen letrak lortu, zinemarako txartelak erosi, Korrika 14ren ibilbidea eta Ibilaldiaren '05en nondik norakoak ezagutu, azken orduko albisteen berri izan, inguruko farmazien ordutegia lortu eta munduaren bestaldean dagoen lagunari egunero-egunero *zurekin akordatzen naiz esan*.

Hemendik aurrera, hiruhilabetero, gai eta tankera orotariko euskarazko web orri interesgarrien zerrendatxoa aurkeztuko dizuegu. Zuek ere interesgarri deritzozuen halakorik ezagutuz gero, bidali *berbaro@berbaro.com* helbidera eta hurrengo buletinean sartuko dugu!

Tira ba, egin Klik euskaraz eta sarzaitzte interneten mundu majikoan...

Nahia Zarzosa Aizpurua

Datozenak

BERBAROREN ESKUTIK

Martxoaren 17an, osteguna, **Zinea Euskaraz**, 20:30etan Zugaza Zinean

KORRIKA

Martxoaren 12an, larunbata, **KORRIKA JAIALDIA** Trikitilariak, animazioa, bertsolariak, afaria, erromeria... 20:00etan poteoa, Santa Anan eta 20:30etan Antzokian afaria.

Martxoaren 17an, **KIRMEN URIBE** Solasaldia, 18:00etan Udal Euskaltegian.

Martxoaren 18an, ostirala, **BADATOR KORRIKA**. Karrera Durangora 09:45 inguruan helduko da Iurretatik. Korrika pasatu ondoren hamaiketako Andra Mariako Elizpean.

PLATERUENEAN

Martxoaren 12an, larunbata, **BAGA BIGA HIGA** Antzerkia 17:30etan. Sarrera 2 euro.

Martxoaren 12an, larunbata, jaia, bertsoa, musika, **KORRIKA 14 AFARIA**, 21:30etan Afari-txartela 15 euro

Martxoaren 16an, asteazkena, musika-literatura: **BIZITZEAK HIL EGITEN DU**. 20:00etan dohainik

Martxoaren 18an, ostirala, **MUSIKENE BIG BAND**, 22:00etan dohainik

Martxoaren 19an, larunbata, **Dr. BLUES BAND**, 20:00etan dohainik

Web gune interesgarriak

www.erabili.com: Azpeitiko Euskara Patronatuaren web orrian informazio ugari topa dezakegu: lan-tresnak, berriak, plangintzak...benetan oso gune interesgarria.

www.hiztegia.net: hiztegi guztiak klik batean. Kirola, sukaldaritza, medikuntza, entziklopediak, hiztegi orokorrak.... Merezki du.

www.euskalerrria.org: agenda, foroak, herri-aldizkariak, posta elektronikoa euskaraz.

www.aurki.com: bilatzailea, informazio eguneratua euskaraz, etab.